

ZALAPARTA SUKALDEAN

Egun hartan, sukaldean,
iskanbila sortu zen.
Entzun ongi! Zaudete adi!
Esango dizuet zer gertatu zen!

Zirika zebiltzan sardexka,
edalontzia eta platera.
Baita labana eta gatzontzia ere.
Denak batera!

"Mahaian, gu ez bagaude,
ezin da bazkaldu.
Beste tresnak, beren kasa,
ez dira ondo moldatu".

Mahai-zapiak, ordea,
bera zenez bizkorrena,
bazekien elkarrekin aritzea zela
aukerarik onena.

Labana zorrozki mintzatu zen:
"Hemen gu gara nagusi.
Zuek ez duzue ezertarako balio.
Oraindik ez al duzue ikusi?".



"Onar ezazue behingoz",
esan zuen platerak.
"Gu gara ospetsuenak,
eta zuek baino hobeak".


Koilarak, buruhandia izatean
asko pentsatzen zuenez,
inor kanpoan utzi gabe,
lagun guztiak elkartu zituen.

Elkarri laguntzea erabaki zuten,
denek baitzuten sinesten
haiek ere balio zutela
beste edonork bezainbeste.

"Zaudete lasai.
Elkarrekin aritzen bagara,
haien laguntzarik gabe ere
bazkaria zerbitzatzeko gai izango gara".

Katiluak bete zuen
plateraren egitekoa,
eta erretiluan atera zuten
bazkaritan jatekoa.

Ezpain-zapie, elkartuta,
estali zuten mahaia dotore.
Mahai-zapi polita osatu zuten,
zeuzkana mila kolore.



Bi burrunzik egin zuten
sardexkaren lana.

Lagun minak zirenez,
dena erdibana.


Kopa dotore ederra
haserre zegoen,
jaiegunetan bakarrik
erabiltzen baitzuten:

"Nik hartuko dut bihar
edalontziaren lekua.
Oso fina naizen arren,
ez naiz batere tuntuna".

"Ai, ene! Hau barregura!",
esan zuen gatzontziak,
"Okela aterako dute jateko,
eta ez dute ezer izango mozteko!"

Aiztoak hartu zuen parte:
"Ez naiz labana bezain dotorea,
baina haren lana egingo dut,
moztuta jateko okela".

Begira-begira zeuden harroputzak,
armairuaren atzean,
eta harrituta gelditu ziren,



beste ere oso trebeak zirela ikustean.

"Oker genbiltzan, lagunok",

esan zuen burrunzaliak.

"Haiek ere bizkorrak dira;

ez gara haiek baino hobeak".

Inor ez da garrantzitsuena;

guztiok gara antzeko.

Elkarrekin aritzen bagara,

moldatuko gara hobeto.

Egun hartatik aurrera,

giro aparta dute sukaldean.

Talde bikaina osatzen dute,

eta beti aritzen dira elkarlanean.

